

---

## "JESUKRISTOREN BERRIONA"

---

Zorionez, ba dagoz gure Errian gizon isil, apal eta langileak, erlearen antzera beti lanari ekin eta inon diran lorarik ederrenen ezti gozoa ataraten dakienak. Euren etxeko gelan sartu, eta gaur bai, eta biar be bai, esku artean artutako lana aurrera eroaten dabe; eta, gitxien uste danean, frutu ugari eta ederrak eskeintzen deuskuez, guztion poz eta onerako. Olakoxea dogu, aspalditik, gure Agustin APAOLAZA, Estibalizko beneditarra.

Komentu barruko zereginak bete, eta ganera 5 liburu txalogarri argitaratu ditu azken urteotan, bostak ari berekoak: Jaungoikoaren berbea euskeraz eskeinia. Ona emen bost liburuon izenak: SALOMOEKIN OTOITZEAN, ASIERA (Genesis), IRTEERA (Exodo), SAN MARKOS-en EBANGELIOA eta, 1994 urtean, JESUKRISTOREN BERRIONA.


Leenengo lau liburuak, azken baten, egitura bardiña edo antzekoa dauke: sarrerak, liburuaren zatiketa eta zati baktxaren sarreratuak, textuaren euskal itzulpena, Eleizearen argitasunak textuon inguruan, eta, azken otoitz labur mamintsuak, irakurritako gaiaren aritik. Danean erakusten deusku Apaolazak here maisutasun andia, oi dauan apaltasunaren azpian. Bere sarrera eta adierazpenak jakituriaz ganezka dagoz, eta irakurketa ta gogoeta askoren frutu dira. Ez dogu Apaolaza edozelango itzultzailea, Bibliagaietan gorengo ikasketa luzeak egindakoa baino. Ez dakit zenbateraino zabaldu diran liburuok; baina, erlejino-gaietan, zénbat liburu argitaratu da euskeraz Apaolazaren host liburuok baizen sakon, dotore ta goi-mailako jakituriaz jantzirik? Nik, neure aldetik,

bein eta barriro esker ona, mirespena eta txalorik beroena agertu gura neuskioz Estibalizko adiskide onari.

Azken liburua, JESUKRISTOREN BERRIONA, ari berekoa da, lau ebanjelioen euskal itzulpena dala; baina ba ditu gauza bereziak be: besteetan baino sarrera laburragoak, egiturea berea bestelakoa, 4 ebanjelioak banan-banan baina liburu bakarrean. Itzulpena, erreza, argia, txukuna, edozeinek pozik irakurteko modukoa. Lekutan dago Apaolazaren erri-euskera gozo au, gaur iruntzi ezinik irakurten doguzan ainbeste itzulpenetik! Liburu baktxean, ebanjelioko testua gai berezietan eskeintzen dau, eta zatitxu baktxaren aurrean sarrera labur argiemoilea. Azkenean, lagungarritzat, ainbat eratako ERASKINAK.

Leizarragaren TESTAMENT BERRIAK, Elizen arteko BIBLIAK eta gure Kerexetaren EUSKAL BIBLIAK, zorionez, entzute andia ta zabala izan dabe azken urteotan. Apaolazaren itzulpen barri onek izan begi zor jakon lekua euskal letren munduan eta, batez be, fededunon biotzetan. Eta frutu eder au emon deuskunak ekin deiola, osasuna dauan artean, "BIBLIAREKIN OTOITZEAN" deritxon sail txalogarriari.

K. ETXENAGUSIA



**Eusko Jaurlaritzaren**

**Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---